

# AŠENCHI TA KONCHEŠI

## IZKETA

---

*(Iruditegiak aurkestatzen du eche bateko gela nagusiya. Atiak atzian ta al-damenetan. Zabaldubak berak agintzen duten eran: mayak apainketaz orniituak, kadirak, alkuyak eta anar; bi alki chiki aurre-aldian.*

*Estalgarria jasotzen daniel agertuko da KONCHEŠI atzeko atian, kanpora deadarka.*

KONCHEŠI. ¡Ašenchi!

AŠENCHI. *(Barrendik)* ¡Koncheši! ¡Banator!

KONCHEŠI. ¡Amak utzi aldizu!

AŠENCHI. *(Sartuko da galtzarbian bordatzeko lanabesa dakarrela.)* Emen naiz Koncheši.

KONCHEŠI. *(Laztanduaz eta musuka jateko zoriyan.)* ¡Zer poša ematen dirazun!

AŠENCHI. Bai nire, panpoša, pošik nator zure gana.

KONCHEŠI. ¿Zer esan dizu amak?

AŠENCHI. Etortzeko. ¿Nola ez bada? ¿Zein juango da andre Pruden-chi-ren echera?

KONCHEŠI. Ura ez da andre Prudenchi, andre itzointzi da.

AŠENCHI. Ez ta andre itzontzi-re. ¡Andre itzajariyo!

KONCHEŠI. Arrazoya dezu bai, ama alaben artian, ¡a zer iturriya!

AŠENCHI. Bai, bai, itza partitu zanian, an ziran bai.

KONCHEŠI. Echi artan egiten da, lan guchi ta itz asko.

AŠENCHI. Egia orainchen esan dezu. Baña guk gaur egingo degu emen, itz guchi ta lan asko.

KONCHEŠI. Ez da gaizki esana.

*(Mai gañian dagon bordatzeko lanabeza artuko du Konchešik, bi lagunak iširiko dira alki chikietan, bata bestiaren aldamenian, ta asiko dira lanian)*

- AŠENCHI. Izan ere, ¿echi artan uzten aldute lanian? ziri ta ziri *mundu guziyen kalte marmarizoka.*
- KONCHEŠI. Orain konturatzen naizela an utziko nuben *rellenatzeko al-godoya.* (*Mai gañian billaka.*)
- AŠENCHI. Utzi zazu, nik emango dizut; etzuazela ara. (*Ematen diyo.*)
- KONCHEŠI. Ez nuke nai. ¿Andre Prudenchi-ren kabu gabeko erretolikak aditzera?
- AŠENCHI. Ori, *Bakallau-šalcha-eneko* andre Tomaña an ez badago.
- KONCHEŠI. Egiya: iñori beñere chanda ematen ez diyon atso berritzura an dagonian, zein ayen tartian egon.
- AŠENCHI. ¡Andre zintzarri arren abotik atera ziranak atzo arratzaldian! Gogoratzen alzera zer esan zituben *España-me-eneko* Katalincho-ren gatik.
- KONCHEŠI. Izan ere. ¿Eta *Shugur luše-eneko* Mikelacho-ren gatik?
- AŠENCHI. Ortan arrasoipi piškabat bazeukan.
- KONCHEŠI. Bai, neska barbantz arren arrokeriyak zer esana franko ematen dute.
- AŠENCHI. ¿Nola ez? Sisa baño arruago iñun kabitu ezin dala.....  
(*Presaka, batak besteari itza amaitzen lajatzen ez diola.*)
- KONCHEŠI. Ichura gabeko pirpillin parpaz gorputz guziya lotuba.....
- AŠENCHI. Mototzian berriz tontor bat kanpantorria baño luziagua.....
- KONCHEŠI. Eta gero danak dakigu nola dabiltzan echian.....
- AŠENCHI. Zorrak emen ta zorrak an.....
- KONCHEŠI. Zorrak baztar guzietan...
- AŠENCHI. Barrenak utz.....
- KONCHEŠI. Eta kanpuan arro.....
- AŠENCHI. Oyek, eta *Mari-lišiba-enekuak...*
- KONCHEŠI. Eta *Katalin-oker-enekuak.*  
(*Biyak batian.*)

KONCHEŠI.

Eta *Lukainkategi-enekuak*  
šušu musu  
makarrosa pare  
ichusi puskas  
chimini-ko kia baño  
beltzagoko  
kedar purtzill ayek.  
¡A zer! .....

AŠENCHI.

Eta beste Arkakušu-enekuak  
šošo kabi  
pantasirosa pare  
ichusi zatar  
chimua bera baño  
kankarrogo-ko  
neska zirtzill ayek.  
¡A zer! .....

- KONCHEŠI. (*Zintzarri soñua entzuten da.*) ¡Ai! Dendatik deitzen dirate. Nuan, zer nai ote duben amak. Ichogon zazu, banator berriala. (*Juaten da*)
- AŠENCHI. Bai, bai, zuaz; bitartian jarraituko diyot lanari. (*Išil-aldi chiki baten ondorian.*) Au bera re ez da kamutsa. (*Koncheši-ren gaitik.*) Au re amaren alaba da bai. Ez dute biyak ere oliyorik biar mingaña dantzatzeko. Gezurra dirudi nola diren jende batzubek: norbaitentzat gaizki esaten ari ez diranian ez dute onik. Aben echian geyago begiratzen zayo kanpoko lapikuari, su ondoko eltziai baño; ta ¿zer gertatzen da gero? barren guziyak kiškaliyak daukazkitela..... eltze barrengua bezela.
- KONCHEŠI. (*Sartubaz.*) Zure billa dira. Zera da, zereko zera.....
- AŠENCHI. (*Lana alki gañian laja ta alchiaz.*) ¿Egiyetan?
- KONCHEŠI. Bai, zera: nola..... *Urdaiazpiko*..... edo basarri ura.....
- AŠENCHI. A, bai: *Burdin azpiko*.....
- KONCHEŠI. Andre bat..... kokotz aspiya bizarrez betia duben bat.
- AŠENCHI. Ber, bera. Andre Mikela Antoñi. Arren semia da bada, igandietan etortzen dan mutil koškor bat, *Lonbardino*.....
- KONCHEŠI. Bernardino izango da.
- AŠENCHI. Ez dakit nik baño, *Lonbardino* deitzen diyote. Badu buru bat illargiya bera baño aundiyyagua. Betia baldin badu a zer mauka gurasuentzat, ¡ja! ¡ja! (*Juaten da*)
- KONCHEŠI. (*Išil aldi chiki baten ondorian.*) Onek ere ez du guraize billa ausora juan biarrik. (*Ašenchi gatik.*) Badaki, badaki. (*Iširi ta asten da lanian.*) Lan ortan aurrekuuen on̄ berekua da. Beti esan oi da orren echekuen gatik, mingain charrekuak dirala. ta aurrera ere ala izateko ichurak dituzte. Ez dakit nik nola duten iñorentzat marmarizuan aitzeko griñ char ori. Eziñ eraman det nere aurrian besterentzat gaizki esatia. Orrengatik ez det juan nai andre Prudenchi-enera, abo-zabal eta mingaiñ-luše jende ayen tartera, ta..... Ašenchi-k badu ayen antza piška bat.
- AŠENCHI. (*Sartubaz.*) Echerako mandatu bat zuben. (*Iširi ta asten da lanian.*) Gauza bat esateko zenbat aldiz berriztu diran: «Ene mañia etzaizu aztuko e, amari esango diyozu mañia e.....», eta mañia gora eta mañia bera..... aztu-re egin zait iya zer mandatu zuben.

- KONCHEŠI. Baserritarak ala dituzu.
- AŠENCHI. Zer kirtenak diran.
- KONCHEŠI. Ez chikiyak ere.
- AŠENCHI. Astotartian jayo, asto tartian bizi, ta.....
- KONCHEŠI. ¶ Ai !! (*Jostarratzakin zulatuko du biatza ta karraši ikaragarrri bat egingo du.*)
- AŠENCHI. ¿Miñ artu al dezu ?
- KONCHEŠI. ¡Ai! ¡Ai! Orra zure berriketakin zer egin zaitan.
- AŠENCHI. ¿Nere berriketakin?
- KONCHEŠI. Bai, iſildu gabe ari zera mundu guziyentzat gaizki esa-ka ta.....
- AŠENCHI. ¿Ni? Zuben echecho kontubak dira oyek. Zubek zerate orlako gaizkiezaliak.
- KONCHEŠI. ¡Lotsagabia! Gu ez baño zubek zerate. Erri guziya arrituba dago zuben mingain zitalakin.
- AŠENCHI. (Alchatubaz.) ¡Likiškeriya! Mingaña ez baño ezpata po-zoituba da zubek guztiyak aboko zuluan daukazutena.
- KONCHEŠI. (Alchatubaz, oso asarre.) Zuaz emendik petral ori.
- AŠENCHI. Aguro gero. Ez det nai orlako eche nazkagarriyan egon.
- KONCHEŠI. ¡Zakarrak kanpora!
- AŠENCHI. Ta zakarrik aundiyyena echian.
- KONCHEŠI. Zuaz ortik purtzilla.
- AŠENCHI. ¡Zirtzilla! (Juaten da.)
- KONCHEŠI. (Aurreratubaz.) Gezurra diruri orlako mirabe mingain gaiztokua munduban sortzia.
- AŠENCHI. (Atietan berriro agertubaz.) ¿Zein da, zein: itzontzi ta itza-jariyo? (Juaten da.)
- KONCHEŠI. (Lasterka atera juan ta deardaka.) ¶Ašenchi!!
- AŠENCHI. (Barrendik ojuka.) ¶Koncheši!!

(AMAITU DA)

A. DARRA